

AMHARERA

AMHARIC, AMÁRICO, AMHARA

Language family: Afro-Asiatic, Semitic, South, Ethiopian, South, Transversal, Amharic-Argobba.

Language codes:

ISO 639-1 am

ISO 639-2 amh

ISO 639-3 amh

Glottolog: amha1245.

Linguasphere: 12-ACB-a.

Beste izen batzuk (autoglotonimoa: ልላግግ, Amarəñña):

abyssinian alt amharic [AMH].

amarigna alt amharic [AMH].

amarinya alt amharic [AMH].

amharic [AMH] hizk. Etiopia; baita Egipto, Israel eta Suedia ere.

ethiopian alt amharic [AMH].

ETIOPIA

amharic (abyssinian, ethiopian, amarinya, amarigna) [AMH]
17.372.913 ama hizkuntza dutenak, 5.104.150 2. hizkuntza dutenak, 16.007.933 talde etnikoan, 14.743.556 elebakar Etiopian (1998ko errolda); herrialde guztietako populazio osoa 17.413.000 edo gehiago, 21.000.000 2. hizkuntza dutenak barne (1999 WA). Ipar Etiopia zentrala, Amhara Eskualdea, eta Addis Abeba. Halaber mintzatua Egipto, Israel, eta Suedian ere. Afro-Asiatic, Semitic, South, Ethiopian, South, Transversal, Amharic-Argobba. Elebitasuna ingeles, arabiera, oromoera eta tigrinyeraz; gobernuan, hedabide publikoetan, megozio-mundu nazionalan, 7. mailara arteko hezkuntzako alor askotan, hainbat motatako literaturan (fikzioa, poesia, teatroa, magazineak) erabilia. Hizkuntza nazionala, hiztegia, gramatika, SOV, preposizioak, postposizioak, genitiboak, artikulua, eta

erlatiboak izen nagusiaren aurrean, galdetzailea hasieran, kasu atzizkiek pertsona, numeroa, subjektuaren eta (optzionalki) objektuaren generoa adierazten dute, pasiboak deponenteak barne, kausatiboak, CV, CVC, V, CVCC, irrati programak, TB.

ISRAEL

amharic [AMH] 40.000 hiztun (1994, H. Mutzafi). Afro-Asiatic, Semitic, South, Ethiopian, South, Transversal. Elebitasuna hebreeraz. Jatorriz etiopiarrek diren juduek mintzatzen dute. Eurek beren buruei 'Beta Israel' deitzen diete eta 'falsaha' gutxiesgarritzat daukate. Irrati programak. Jewish. Ikus sarrera nagusia Etioipian.

Hizkuntza / lengua: amharera/ amharic / amárico / amhara.
Hiztunak / hablantes (2000):17.970.000. Gehi 33.970.000 hizkuntza behikulartzat dutenak (Rafael del Moral).
Herrialdea / país: Etiopia.

HISTORIA. Familia semitikoko hizkuntza afro-asiatikoa, Etiopiako Amara eskualdekoa, dirudenez hor bertan sortua. *ge'ez* hizkuntzaren gertuko mintzairatik garatu bide zen eta substratu *kusitaren* eragin handia izan zuen.

Gaurko Etiopiaren iparraldean garatu zen Axumiten erresuma (Aksum hiriburuarekin) IV m.an kristautu zen eta mende bat geroago itzuli zen Biblia *ge'ezera*, erresumako hizkuntzara eta gaur ere oraindik liturgian erabiltzen dena. Bere aldaki modernoak tigré eta tigríña dira. Amharera, aipatu erresumaren hegoaldeko dialektoa, XIII. m.an zabaldu zen dinastia salomonikoak boterea hartu zuenean. Literatura amhareraz XIV. m.an garatu zen nahiz eta *ge'ez* jarraitu hizkuntza literario bezala eta hezkuntzako XIX m.ra arte. Mende honez gero, amhareraz idazten hasi zen lehenik misiolariak bultzatuta eta gero administrazioak behartuta. Gaur Addis Ababako hizkuntza kolokiala da, nahiz eta eskualdeko hizkuntza jatorrizkoa oromoa izan. Bere erabilera Etiopia osoan ari da hedatzen hizkuntza behikular bezala.

HIZKUNTZA. Ezaugarri nagusiak.

Fonetika. Amhareraren fonetika *ge'ez* hizkuntzarenetik bereizten dute nagusiki beldarren desagerpenak eta auresabaikari ugariaren agerpenak, horzkariak, sabaikariak eta urkariak palatalizazioaren ondorioz.

Morfosintaxia. A) Substantiboa aldagaitza da, plurala -oč egiten duen forma ezik. **B)** Erro gehienak 3 konsonante erradikalekoak dira, nahiz eta 4 konsonanteko erroak *ge'ez* baino ugariagoak diren. **C)** Baditu formazio konposatu espresiboak non erradikal aldagaitz bat jokatzeko den laguntzaile bezala balio duen aditz batekin. Denborak eta moduak adierazteko, *ge'ez* jaso dituen formez gainera, forma konposatuak ditu laguntzaile posposatuarekin. **D)** Tema xumearen ondoan badago barne errepika duen tema frekuentatiboa (*nagaggara*, asko egin du hitz, maiz...). Ekintzaren beste modalitateak (bihurkari-pasiboa, kausa-tiboa, faktitiboa, kooperazioa, ea.) aurrizkidun temen bidez adierazten dira. **E)** Substantiboentzat ez dago genero-morfema argirik, baina bai espreski seinatua artikulatu mugatuan, erakusleetan eta aditzen 3. pertsonan. Generoak batzuetan tamaina bereizten du: maskulinoa handiarentzat eta femeninoa txikiarentzat. **F)** Benetako deklinabiderik ez badago ere, badago akusatiboaren marka bat eta genitiboaren beste bat. **G)** Adjektiboa izenaren aurrean jartzen da. **H)** Aditzen jokaerak arabieraren egitura mantentzen du, hau da, oinarritzat 2, 3 edo 4 erradikal hartzen dituena. Aditza perpausaren amaieran agertzen da. **I)** Menpeko perpausak perpaus nagusiaren aurrean doaz. **J)** 1etik 10 arteko zenbakiak alfabeto grekoko lehen hizkietan daude inspiratuak. Hona hemen amhareraz lehen 10 zenbakiak: *and* (1), *hulätt* (2), *sost* (3), *arat* (4), *ammest* (5), *seddest* (6), *säbat* (7), *semment* (8), *zätäñ* (9), *asser* (10).

Idazkera. Alfabeto *ge'ez* edo etiopiarrean idazten da, hots, hizki batzuk erantsiz eta bokalak seinatzeko ikur berezia duen silabategia. Etiopiar idazkera edo amariakoa 7 bokalekin konbinatzen diren 33 kontsonantetan oinarritzen da eta honela sortzen dira silabak errepresentatzen dituzten 231 zeinuak. Antzeko zerbait gertatzen da indo-ariar hizkuntzen idazkeretan ere.

HISTORIA. Lengua afroasiática de la familia semítica, propia de la región de Amara de Etiopía, aparentemente el lugar donde se originó. Se desarrolló a partir de un habla cercana al *ge'ez* y sufrió fuertemente la influencia del sustrato *kusita*.

El reino axumita (con capital en Aksum), que se desarrolló al norte de la actual Etiopía, se convirtió al cristianismo en el s. IV, y un siglo después se tradujo la Biblia al *ge'ez*, que era la lengua que se hablaba en este reino y que todavía se emplea en la liturgia. Sus 2 variantes modernas son el tigré y el tigríña. El amárico, dialecto del sur de aquel reino, se extendió con la llegada al poder de la dinastía salomónica en el s. XIII. La literatura en amárico se desarrolló en el s. XIV, aunque el *ge'ez* se mantuvo como lengua literaria y también de educación hasta el s. XIX. A partir de este siglo, la lengua empieza a escribirse impulsada, primero por los misioneros y después por las necesidades administrativas. Hoy es la lengua de uso coloquial en Addis Abeba, a pesar de que la lengua nativa de la región es el oromo. Su uso se extiende por toda Etiopía como lengua vehicular.

LENGUA. Principales características.

Fonética. La fonética del amárico difiere de la del *ge'ez* especialmente por la desaparición de las velares y por la aparición de numerosas prepalatales, procedentes de la palatalización de las dentales, palatales y líquidas.

Morfosintaxis. A) El nombre es invariable, salvo una forma del plural en -oč. **B)** La mayoría de las raíces constan de 3 consonantes radicales, aunque las raíces de 4 consonantes son más numerosas que en *ge'ez*. **C)** Conoce formaciones compuestas expresivas en que un radical invariable se conjuga mediante un verbo que sirve de auxiliar. Para la expresión de los tiempos y de los modos dispone, además de las formas heredadas del *ge'ez*, de formas compuestas con auxiliar pospuesto. **D)** Al lado del tema simple hay un tema frecuentativo de repetición interna (*nagaggara*, ha hablado mucho, a menudo...). Las otras modalidades de la acción (reflexivo-pasivo, causativo, factitivo, cooperación, etc.) se expresan mediante temas con prefijos. **E)** No existe claramente un morfema de género para los nombres, aunque sí aparece específicamente señalado en el artículo definido, en los demostrativos y en la 3ª persona de los verbos. El género a veces distingue el tamaño: masculino para el grande, femenino para el pequeño. **F)** Aunque no existe realmente declinación, sí hay una marca de acusativo y otra de genitivo. **G)** El adjetivo se coloca ante el nombre. **H)** La conjugación de los verbos respeta la estructura del árabe, es decir, la que toma como base 2, 3 ó 4 radicales. El verbo aparece en posición final de oración. **I)** Las oraciones subordinadas se anteponen a la oración principal. **J)** La forma de las cifras del 1 al 10 se inspira en las primeras letras del alfabeto griego. Los 10 primeros números en amárico son: *and* (1), *hulätt* (2), *sost* (3), *arat* (4), *ammest* (5), *seddest* (6), *säbat* (7), *semment* (8), *zätäñ* (9), *asser* (10).

Escritura. Se escribe en alfabeto *ge'ez* o etíope, un silabario al que se añaden algunas letras más y un signo particular para indicar las vocales. La escritura etíope o amárica se fundamenta en la combinación de 33 consonantes con 7 vocales, de lo que resultan un total de 231 signos que representan sílabas. Algo parecido ocurre con las escrituras de las lenguas indo-arias.

GRAMATIKAK, METODOAK, ESKULIBURUAK

AMHARIC FOR FOREIGN BEGINNERS, Fourth edition, Alem Eshetu, 20x14,5, 151 or., Addis Ababa, **2001**.

AMHARIC FOR FOREIGNERS, Sixth edition, By Semere Woldegabir, 20,5x14, 176 or., Addis Ababa, **1996**.

AMHARIC TEXTBOOK, Harrassowitz Verlag, Wolf Leslau, 23x16, 674 or., Wiesbaden, **1967**.

HIZTEGIAK, LEXIKOAK

ENGLISH-AMHARIC, Merit, 44.000 Words, By Ephrem Assefa Woredework, 20x14,5, 975 or., **1994**.

OROMO, ENGLISH, AMHARIC, Qabee Jechootaa, 3rd edition, 8.000 words, W-Bashaa Yaadatee Tiin, Mirgi Qopheessaa Kan eeggama, 20x14,5, 82 or., Bara **1996/7**.

WOLAYTIGNA-AMHARIC-ENGLISH, Lemma Didanna, 13,5x10, 199 or., **1992**.

AMHARAR ALFABETOA AMHARIC ALPHABET

**Amharar ahoskera / Amharic pronunciation
Kontsonanteak / Consonants**

Bokalak / Vowels

**Amharerarentzat ge'ez (etiopiar) idazkera
The Ge'ez (Ethiopic) script for Amharic**

Punctuation

Numeralak / Numerals

Numeral hauek greziar
alfabetotik eratorriak dira,
seguruenez via koptera.

These numerals developed from
the Greek alphabet, possibly via
Coptic.

Testu-lagina amhareraz / Sample text in Amharic

Letraldaera / Transliteration

Yä-säw lij hullu siwwäläd näs'a-nna bä-kibrinna bä-mäbtim ikkulinnät
y-alläw näw yä-täfät'ro yä-mastäwalinna hilinaw silalläw andu lelawn
bä-wändimamacinnät mänfäs mämälkät yä-gäbbawal.

Itzulpena / Translation

Gizon-emakume guztiak aske
jaiotzen dira, duintasun eta
eskubide berberak dituztela; eta
ezaguera eta kontzientzia
dutenez gero, elkarren artean
senide legez jokatu behar dute.
*(Giza Eskubideen Aldarrikapen
Unibertsaleko 1. artikulua)*

All human beings are born free
and equal in dignity and rights.
They are endowed with reason
and conscience and should act
towards one another in a spirit
of brotherhood.
*(Article 1 of the Universal
Declaration of Human Rights)*